



Hasteko, gure negozioak bertako produktuari (km0) garrantzi handia emango dionez, funtsezkoa da bertako ekonomia sustatzen duten produktuak erosi eta eskaintzea. Guk gure negozioan eskaintzen ditugun ondasunetako bat janaria denez, Euskal Herrian ekoizten diren elikagaien ekoizleekin harremana edukitzea oinarritzkoa dela iruditzen zaigu. Hala nola, kafetegi batean aurki ditzakegun elikagaiak zeintzuk diren jakinda, Kaiku, Aramendia, Gorrotxategi edo Bake bezalako markak izango lirateke gure funtsezko elkarteak.

Horrez gain, enpresa honek eskaintzen duen beste zerbitzuetako bat irakurmenaren sustapena denez, oso garrantzitsua litzateke zerbitzu hau eskaintzen duten beste enprekin lan egitea; esate baterako, Elkar liburu dendarekin. Gainera, bezeroen arteko liburu trukaketa ahalbidetuko da, irakurmenaren arloan ikuspegi zabalagoa lortu ahal izateko.

Beraz, gure harremanen izaera kontuan hartuta, gure elkarteak elkarrekiko lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza estrategikoa izango litzateke. Hots, gure hornitzaileak eskaintzen dituzten ondasunak ez dira elkarren arteko lehiakide, ezta gure ondasunenak ere.

